

LAGINAREN EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2016/2017

Lehen Hezkuntzako 6.a

Amaierako txostena
2018ko otsaila

EBALUAZIO ETA KALITATE ATALA

AURKIBIDEA

1. Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioa	3
2. Ebaluazioaren oinarriko datuak	4
2.1. Ikastetxe eta ikasleen laginaren hautaketa.....	4
2.2. Ikasle salbuetsiak, etorri ez diren ikasleak eta egokitzapenak	4
3. Neurgailuen deskribapena	6
3.1. Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia	6
3.2. Gaitasunak neurtzeko probak	6
4. Emaidza globalak	10
4.1. Batez besteko puntuazioak	10
4.2. Gaitasunen araberako errendimendu mailak	12
5. Zenbait aldagaien araberako emaitzak	14
5.1. Generoa	15
5.2. Ikasmaita errepikatzea	16
5.3. Eskolatze goiztiarra	17
5.4. Ikaslearen jatorria	18
5.5. Indize sozioekonomiko eta kulturalaren maila (ISEK)	20
5.6. Ikastetxearen titulartasuna	22
5.7. Eskola-absentismoa	26
5.8. Etxeko lanetan emandako denbora irakastorduetatik kanpo	27
5.9. Ikasleen gogobetetasuna ikastetxean	28
5.10. Baliabide teknologikoen erabilera etxeko lanetarako	29
6. Eranskinak	31
1. ERANSKINA Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak	31
2. ERANSKINA Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia	32
3. ERANSKINA Gaitasun bakoitzeko probetako galderen ezaugarriak	36
4. ERANSKINA Errendimendu mailen zenbakizko zehaztapena eta deskribapen kualitatiboa ..	40

1. Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioa

Hezkuntza Departamentuak ezarri du laginaren ebaluazio diagnostikoa egitea Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko egutegirako presazko neurriei buruzko abenduaren 9ko 5/2016 Errege Lege Dekretuak xedatzen duenari jarraikiz. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak ditu:

- Lagin baten gainean egina da (ikastetxeen eta ikasleen laginen hautaketa behar adinakoa izanen da datu esanguratsuak lortzeko).
- Xedea da Nafarroako hezkuntza sistemaren diagnostikoa egitea.
- Oinarrizko gaitasunen gainekoa da.
- Ez da banakako txostenik egiten, ezta parte hartzen duten ikastetxeei buruzkorik ere.

Ebaluazioan landu dira irakas-hizkuntzetako irakurmena, ingelesezko hizkuntza gaitasuna, matematika gaitasuna eta zientzia gaitasuna.

Errendimendu probak Ebaluazio eta Kalitate Atalak prestatu ditu, behar bezainbateko eskarmentu profesionala duten maisu/maistrek, Nafarroako ikastetxeetan zerbitzu egiten ari direnek, taldeka egindako lanetik abiatuta. Proba horiek ikasleen bizitzatik hurbil dauden inguruneen gainekoak dira, barne direla bai egoera pertsonalak bai familia, eskola edo gizarte mailakoak, bai zientifikoak edo humanistikoak; beraz, ikasleen testuinguruko galde-sortekin batera, aukera ematen dute hezkuntza sistemaren baldintza sozioekonomiko eta kulturalen gaineko argibideak lortzeko, eskuratutako emaitzak testuinguru batean kokatu ahal izateko.

Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioaren probak aplikatzeko egiaztapena jaso duen enpresa *2E Estudios, Evaluaciones e Investigaciones S.L.* izan da; bera arduratu da egindako proba guztiak aplikatzeaz, zuzentzeaz eta kodetzeaz. Beraz, ebaluazio prozesua ikastetxeetatik kanpo egin da guztiz.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen amaierako ebaluazioaren emaitza orokorrak aurkezten dira txosten honetan; hura 2016-2017 ikasturtean egin zen, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeen lagin batean, eta argibideak eman ditu, bai ebaluatoriko gaitasunen gaineko errendimenduari buruz, bai emaitza horiek testuinguru batean kokatzen dituzten hezkuntza sistemaren baldintza sozioekonomiko eta kulturaleri buruz.

2. Ebaluazioaren oinarriko datuak

2.1. Ikastetxe eta ikasleen laginaren hautaketa

Ebaluazio eta Kalitate Atalak egin du, Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionaleko (INEE) teknikarien laguntzaz, ikastetxeen eta ikasleen laginaren hautaketa, eta behar adinakoa da Nafarroaren gaineko datu esanguratsuak lortzeko. Ausazko laginketa baten bidez egin zen, bi etapatan (bietapikoa):

- Lehen etapan ikastetxeak hautatu ziren bi geruza ezarririk haien titulartasunaren arabera (publikoak eta itunduak) eta ikastetxearen tamainaren arabera ausazko hautaketa sistematikoa erabiliz horretarako. Etapa honetan, kanpoan gelditzen dira azterketaren xede den hezkuntza mailan 3 ikasle edo gutxiago dituzten ikastetxeak. Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeen zerrenda txosten honen 1. ERANSKINEAN agertzen da.
- Bigarren etapan, ikastetxe bakoitzeko ikasleak hautatu ziren, ausazko hautaketa soila eta generoaren arabera geruzatua erabiliz horretarako. Ikastetxe bakoitzean gehienez ere hautaturiko ikasle kopurua 30 da; kopurua gutxiago izan denean ikasle guztiak ebaluatu dira.

Beraz, Nafarroan egindako laginketak datu esanguratsuak eskaintzen ditu ikastetxearen titulartasunaren arabera, baina ez du hizkuntza ereduaren arabera datu esanguratsurik ateratzeko aukerarik ematen.

Ikerketatik kanpo gelditu ez diren ikastetxeetako matrikula datuen arabera (Educan erregistratuak, 2017ko urtarrilaren 17an), abiapuntua da 6.494 ikasleko populazioa; haietatik, 2.563 ikastetxe itunduak ari dira eta 3.931 ikastetxe publikoetan. Hortik abiatuta, abiapuntuko laginketa hau atera zen (Lehen Hezkuntzako 6.eko matrikularen %21,3):

Titulartasuna	Ikastetxe kopurua	Ikasle kopurua
Itundua	19	570
Publikoa	30	814
Guztira	49	1.384

2.2. Ikasle salbuetsiak, etorri ez diren ikasleak eta egokitzapenak

Ebaluazio orotan bezala, gerta daiteke ikasle batzuek ezintasuna izatea probak baldintza egokietan egiteko. Hori dela kausa, probetatik salbuesteko lau arrazoi ezarri ziren:

- Probaren hizkuntza ez ezagutzea, hasiberria izateagatik gure hezkuntza sisteman (urtebete baino gutxiago).
- Proba egitea galarazten duen inguruabar iragankorra (beso hautsia edo igeltsatua, ikusmen urria...).
- Lehen Hezkuntzako 6. ikasmilako ikasleak, errekupeazio planetan ari direnak Lehen Hezkuntzako 4.eko edo beheragoko Matematika eta/edo Hizkuntza arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, Educa kudeaketa-programan erregistratuak eta/edo curriculum-egokitzapen esanguratsuak (CEE) dituztenak.

Irizpide horiek aplikatuta, 88 ikasle salbuetsi ziren (21 ikastetxe itunduetan eta 67 publikoetan); beraz, azken laginketan 1.296 ikasle gelditu ziren ebaluatzeko gai.

Aplikazioaren fasea 2017ko maiatzaren 15etik 31ra bitarte burutu zen, ikastetxe bakoitzera bi egunez joanez; hartan, 77 kasu erregistratu ziren informazio osorik gabe, bi arrazoi zirela-eta:

- 30 ikasle ez ziren ez egun batean ez bestean etorri (10 ikastetxe itunduetan eta 20 ikastetxe publikoetan) eta, protokoloari jarraikiz, jada ez zuten proba beste noizbait egin.
- 47 ikasle ez ziren egun batean etorri (15 ikastetxe itunduetan eta 32 ikastetxe publikoetan), eta ezin izan zituzten proba guztiak egin.

Txosten honetan agertzen diren emaitza orokorretan (estatistikoak) kontuan hartu dira probei osorik erantzun zieten 1.219 ikasle salbuetsi gabeen datuak; horietarik, 524 ikastetxe itunduetan ari dira eta 695 ikastetxe publikoetan. Jaitsiera horrek planifikatuaren aldean lortu gabeko %11,9ko ehunekoa dakar [% 6,4 salbuetsita zeudelako eta %5,5 ez zirelako guztiz ebaluatu].

Ikuspuntu estatistikotik:

- Amaierako laginketa (1219 ikasle aztertutik) Lehen Hezkuntzako 6. mailako matrikularen %18,8 da; beraz, Nafarroako hezkuntza sistemako maila horretako lagin adierazgarria da.
- Kontuan harturik laginketaren diseinua, azterketak egiteko tenorean ikasle horietariko bakoitzari bere "laginketa-pisua" (haztapena) esleitu zitzaion, erran nahi baita, lagineko ikasle horrek populazioko zenbat ikasle ordezkatzeko duen adierazten duen balioa.

Azkenik, oroitarazi beharra dago aplikazio prozesuak iraun bitartean ondotik adierazten diren egokitzapen neurriak hartu zirela hezkuntza premiak dituzten ikasleendako, ikastetxeek jakinarazitako eskakizunei jarraikiz:

- Denbora luzatzea (luzeenak dira probak egiteko denborak).
- Kokapen egokia ikasgelan.
- Egiaztatzea ikasleak ulertu dituela proba egiteko jarraibide orokorrak eta, bestela, ariketa edo ataza zehatz baten berriazko jarraibideak.
- Egiaztatzea ikasle bakoitza proba egiten ari dela arreta edo denbora gehiegi galdu gabe.
- Ahalegina sendotzea eta ziztatzea, ikaslea lagunduz ariketa edo proba egiten segi dezan eta, orobat, proba entregatu baino lehen galdera guztiak erantzun dituela gainbegiratu.

3. Neurgailuen deskribapena

3.1. Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia

Ebaluazioa egiten den aldi berean Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia aplikatu zen (paperean). Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Estatu Idazkaritzaren 2016ko martxoaren 30eko Ebazpenaren I. eranskina hartzen du galdetegi horrek erreferentziatako. Ebazpen horren bidez definitu egiten dira Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluaziorako testuinguruko galdetegiak eta ikastetxeko adierazle komunak. Galdetegia osatzen duten 15 galderak ikus daitezke txosten honen 2. ERANSKINEAN.

Galdetegi horri erantzunda ikasleek halako informazio bat ematen dute eta horretatik abiatuik aldagai batzuk eraiki dira, ikasleen errendimenduaren gainean zer faktorek duten eragina aztertzeko. Informazio hori osatzeko eta alderatzeko erabili dira eskola kudeaketarako Educa programan (Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren sistema informatikoa) erregistraturiko datuak.

3.2. Gaitasunak neurtzeko probak

Ebaluazioa ardaztu da lau gaitasunen errendimenduaren azterketan: gaztelaniazko edo euskarazko irakurmen gaitasuna, ingelesezko hizkuntza gaitasuna, matematika gaitasuna eta zientzia gaitasuna.

Gaitasun bakoitzak ebaluatzeko proba berariazkoa du. Guztiak Ebaluazio eta Kalitate Atalaren webgunean aurkitzen dira, bakoitza zuzentzeko koadernoekin batera:

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/evaluacion-y-calidad/evaluacion/evaluacion-externa/evaluacion-de-navarra>

Hona hemen **proba guztien ezaugarri komunitariko batzuk**:

- Bakoitza egiteko 60 minutu ematen da gehienez.
- Paperezko formatuan aplikatzen dira.
- Ingelesa kenduta, aplikazio hizkuntza eskolako ikasketetakoa da, erran nahi baita, gaztelania A/G hizkuntza eredu ikasleentzat, eta euskara B/D hizkuntza eredu ikasleentzat.
- Galderak gaitasunen ingurukoak dira eta zerikusia dute Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumari dagozkion eduki-blokeekin (60/2014 Foru Dekretua).
- Galdera gehienak aukera anitzekoak dira, nahiz eta badauden galdera erdi irekiak eta irekiak.

Banan-banan, hona hemen **proba bakoitzaren ezaugarri berariazkoak**:

- (1) Gaztelaniazko edo euskarazko irakurmen gaitasuna neurtzeko proba: 3 testuren gaineko 23 galderak osatua, guztira, eskura daitekeen gehieneko puntuazioa 23 izanik.
- (2) Ingeleseko hizkuntza gaitasuna neurtzeko proba:
 - Guztira, 32 galdera ditu, eskura daitekeen gehieneko puntuazioa 47 izanik.
 - Hiru zati ditu: entzute ariketa (*listening*), bitan errepikatzen dena, idatziaren ulermenerako 2 testu (*reading*) eta idazmen proba laburra (*writing*).
 - Hizkuntza trebetasun hauek pisu desberdina dute puntuazio osoaren barnean; hona puntuazio horiek:

Trebetasuna	Puntuazioa	Haren pisua puntuazio osoan
<i>Listening-a</i>	10	%22
<i>Reading-a</i>	21	%46
<i>Writing-a</i>	15	%32
GUZTIRA	46	%100

- (3) Matematika gaitasuna neurtzeko proba: 3 egoeren gaineko 24 galderak osatua, guztira, eskura daitekeen gehieneko puntuazioa 27 izanik.
- (4) Zientzia gaitasuna neurtzeko proba: 4 egoeren gaineko 38 galderak galderak osatua, guztira, eskura daitekeen gehieneko puntuazioa 43 izanik.

Gainera, txosten honen 3. ERANSKINEAN proba bakoitzerako argibide taula agertzen da, zeinean deskribatzen baitira **galdera bakoitzaren ondoko ezaugarriak**:

- *Tipologia*: erdi irekia/irekia edo itxia (aukera anitzekoa).
- *Erantzun zuzena* (bakarrik itxia bada).
- *Esleitutako gehieneko puntuazioa*.
- *Zailtasun indizea*: galdera bakoitzak zailtasun maila bat du, galdera hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera (erantzun zuzenen ehuneko).
- *Diskriminazio indizea*: galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Azkenik, ebaluazio proban egindako galderen konplexutasun handiagoan edo txikiagoan oinarriturik, baita ikasleek emandako erantzunen zuzentasun mailan oinarriturik ere, identifika daitezke **gaitasunen arabera lau errendimendu maila**. Errendimendu mailak dira ebaluaturiko gaitasun probetan ikasle batek frogatutako ezagutza, trebetasun eta jarreraren deskribapena; labur esanda, ikasleek *egiten dakitena*.

Orokorrean, ebaluatoriko gaitasunen garapen gradua 4 mailatan banatzen da:

- **1. maila.** Gaitasuna eskuratzeko maila apalenari dagokio.
- **2. maila.** Hura deskribatzeko “gaitasunaren garapen partziala” erabiltzen da, eta hemen daude ikasteko oinarrizko tresnak dituzten ikasleak, baina, zenbaitetan aski ez direnez, halako inguruabar batzuetan emaitzak positiboak dira eta bestetan ez.
- **3. maila.** Modu honetan identifikatzen diren ikasleek errendimendu onak izan ohi dituzte eta ikaskuntzei modu autonomoan heltzeko behar diren baliabideak.
- **3+. maila.** Ikasteko zailtasunik ez duten ikasleei dagokie. Gaitasuna eskuratzeko goren gradua irudikatzen dute.

1. mailak *atzean gelditu diren* ikasleak irudikatzen ditu; 1. eta 2. mailek, batera, *gaitasun maila egokira heltzen ez diren* ikasleak irudikatzen dituzte; 3. eta 3+. mailek, batera, *gaitasun maila egokira heltzen diren* ikasleak irudikatzen dituzte, eta 3+. mailak *bikaintasuna irudikatzen du*.

Gaitasun horiek noraino eskuratu diren modu kualitatiboan azaltzen da txosten honen 4. ERANSKINEAN. Errendimendu maila bakoitzaren deskribapenean, probak egin dituzten Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek zer erakutsi duten egiten dakitenaz azaltzen da. Informazio kualitatibo horren osagarri, informazio kuantitatiboa ere ematen da, puntuazioen bidez: eten puntu izenekoak dira; bakoitzak adierazten du halako maila batean kokaturiko ikasle batek lortu duen gutxieneko eta gehieneko puntuazioa. Informazio hori guztia, aurkezten den horretantxe, inklusiboa da, erran nahi baita, gaitasun edo trebetasun bakoitzean maila bakoitzerako garatutako ikaskuntzek lehenagoko maila guztietakoak ere berenganatzen dituztela; hartara, ikasle bat halako maila batean kokaturik dagoenean, esan daiteke gai dela bertako trebetasunetan eta beheragoko mailetakoen ere bai.

4. Emaidza orokorrak

4.1. Batez besteko puntuazioak

Ondoko laukian agertzen dira Nafarroako LHko 6. mailako ikasleek lortutako puntuazioen estatistika nagusiak, ebaluaturiko gaitasun bakoitzean:

Estatistika	Gaitasuna			
	Irakurmen gaitasuna (gaztelaniaz eta euskaraz)	Hizkuntza gaitasuna ingelesez	Matematika gaitasuna	Zientzia gaitasuna
Gutxienekoa	2	3	0	0
Gehienekoa	23	44	26	41
Batez bestekoa	14,3995	23,1338	12,7944	24,4742
Desb. tipikoa	4,2845	7,8615	4,9128	6,0979
Barreiadura erlatiboa (Pearson-en BK)	0,30	0,34	0,38	0,25
Asimetria	-0,3766	0,1214	0,3872	-0,2362
Kurtosia	-0,5617	-0,4353	-0,4106	-0,1159





Alderdi azpimarragarriak:

- Nafarroako batez besteko puntuazio orokorrak honako hauek dira:
 - 14,4 puntu irakurmen gaitasunean (gehienez 23 izanik posible)
 - 23,1 puntu ingelesean (gehienez 46 izanik posible)
 - 12,8 puntu matematika gaitasunean (gehienez 27 izanik posible)
 - 24,5 puntu zientzia gaitasunean (gehienez 43 izanik posible)

Gisa hartara, emaitza hoberenak ordena honetan eskuratzen dira: lehenik, irakurmen gaitasuna; bigarrenaz, zientzia gaitasuna; hirugarrena, ingelesezko gaitasuna, eta laugarrenez, matematika gaitasuna.

Matematika gaitasunean eta ingelesezko hizkuntza gaitasunean eskuratutako batez bestekoek hobetzeko eginkizuna agertzen dute, bietan, hurrengo ikasturteetarako.

- Ebaluatu diren ikasleen artean, bakar batek ere ez du puntuazio handiena eskuratu ingeleseko, matematika gaitasuneko eta zientzia gaitasuneko probetan.
- Lau gaitasunetan, barreriadura erlatiboak adierazten du banakako puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.
- Asimetria eta kurtosi koefizienteek zeroa hurbil dute, eta horrek adierazten du eskuratutako puntuazioen banaketa banaketa normalaren itxuraren antzekoa dela (Gauss-en kanpaia). Hurrengo orrialdeak agertzen dira banaketa horien grafikoak.



4.2. Gaitasunen arabera errendimendu mailak

Emaitzak lau errendimendu mailatan banatu dira (1. maila, 2. maila, 3. maila eta 3+. maila), ebaluatutako gaitasunen garapen graduaren berri emateko.

Hurrengo orrialdeko laukian eta grafikoen agertzen da ikasleen banaketa, gaitasun guztietan lortutako mailaren arabera. Ohartemateko moduko kontuak:


- Ingeleseko hizkuntza gaitasunean, matematika gaitasunean eta zientzia gaitasunean, hamar ikaslelik zazpi inguru (%70) iristen da gaitasun maila egokira; irakurmen gaitasunean, berriz, kopuruak ia-ia hirutik laura egiten du gora (%74). Beraz, Lehen Hezkuntzako 6. mailako nafar ikasleen soslaiak errendimendu ona du lau gaitasunetan.
- Irakurmen gaitasunean, ingelesezko hizkuntza gaitasunean eta zientzia gaitasunean, hamar ikaslelik bat baino gehixeagok (%11) neurri bereziak behar ditu maila apalenean egoteagatik (N1); kopuru hori handiagoa da matematika gaitasunean: zazpitik bat (%14).
- Atzean gelditu diren ikasleen ehunekoa (N1 maila apalenean daudenak) irakurmen gaitasunean (%11,1) eta zientzia gaitasunean (%10,0) txikiagoa da ikasle bikainen ehunekoa (N3+ maila gorenean daudenak) baino gaitasun berberetan: irakurmena (%11,5) eta zientzia (%11,5).

Ingeleseko hizkuntza gaitasunean, atzean gelditu diren ikasleen ehunekoa (%11,0) ikasle bikainena baino pixka bat handiagoa da (%10,4).

Matematika gaitasunean, atzean gelditu diren ikasleen ehunekoa (%14,0) handixeagoa da ikasle bikainena baino (%10,9).

Alde horiek guztiak ez dira adierazgarriak estatistikoki begiratuta; horrek agerian jartzen du Nafarroako hezkuntza sisteman dagoen ekitatea, baina aldi berean eginkizun uzten du matematika gaitasunean eta ingelesean hobetu beharra hurrengo ikasturteetarako.

Ikasleen ehunekoa Nafarroan	Gaitasuna			
	Irakurmen gaitasuna (gaztelaniaz eta euskaraz)	Hizkuntza gaitasuna ingelesez	Matematika gaitasuna	Zientzia gaitasuna
1. maila (atzean gelditu direnak)	%11,1	%11,0	%14,0	%10,0
2. maila	%14,5	%17,6	%14,1	%20,7
3. maila	%62,9	%61,0	%61	%57,8
3.+ maila (bikainak)	%11,5	%10,4	%10,9	%11,5
Gaitasun maila egokia lortzen duten ikasleak (N3 eta N3+ mailak)	%74,4	%71,4	%71,9	%69,4
Gaitasun maila egokia lortzen ez duten ikasleak (N1 eta N2 mailak)	%25,6	%28,6	%28,1	%30,6



5. Zenbait aldagaien arabera emaitzak

Ikasleen errendimenduan hainbat faktorek eragiten dute, hala ikastetxeari loturiko ezaugarriak nola ikaslearenak berak eta haren ingurune sozial, ekonomiko eta kulturalari dagozkionak.

Ondoren, ebaluaturiko gaitasunen emaitzei loturik dauden zenbait faktore jorratzen dira. Ebaluaturiko lau gaitasunetan faktore horiek duten eragina aztertzen da.

Alderaketa horiek egiteko, batez besteko puntuazio **eraldatua** erabiltzen da, hau da, puntuazio zuzena eskala jarraitu batera ekartzean gelditzen dena, eskala horren batez bestekoa 500 puntukoa denean (Nafarroan ebaluaturiko ikasle guztien batez besteko puntuazioa) eta desbideratze tipikoa, berriz, 100 puntukoa. Eskala horrek errazten du talde eta gaitasunen arteko alderaketa. Desbideratze tipikoa 100 izateak esan nahi du ikasleen bi herenek, nonbait hor, 400dik 600era bitarteko puntuazioa dutela, eta %95ek, nonbait hor, 300dik 700era bitartekoa.

Ikuspegi kuantitatibo batetik, desbideratze tipikoaren irizpidea ere erabil daiteke, gaitasun jakin batean lortutako batez besteko puntuazioaren eta Nafarroako batez bestekoaren artean dagoen aldearen garrantzia baloratzeko. Adibidez, Nafarroako desbideratze tipikoa erreferentzia gisa harturik:

- Aldea desbideratze tipikoaren 1/4 baino txikiagoa bada, arintzat har daiteke (25 puntu baino gutxiago, 500eko eskalan).
- Aldea desbideratze tipikoaren 1/4 eta 1/3 artekoa bada, moderatutzat har daiteke (25 eta 33 puntu artean, 500eko eskalan).
- Aldea desbideratze tipikoaren 1/3 baino handiagoa bada, orduan bai, handitzat har daiteke (33 puntu baino gehiago, 500eko eskalan).

Hona eraldatze hori lortzeko formula, gaitasun bakoitzaren balio berariazkoak erabiliz:

$$\text{Punt.Eraldatua} = 500 + 100 \times \left(\frac{\text{PuntZuzen} - \text{BatezBestekoa}_{\text{Nafarroa}}}{\text{DesbTip}_{\text{Nafarroa}}} \right)$$

Atal honetan faktore hauek aztertzen dira:

- Generoa
- Ikasmila errepikatzea
- Eskolatze goiztiarra
- Ikaslearen jatorria
- Indize sozioekonomiko eta kulturalaren maila (ISEK)
- Ikastetxearen titulartasuna
- Eskola-absentismoa
- Etxeko lanetan emandako denbora irakastorduetatik kanpo
- Ikasleen gogobetetasuna ikastetxean
- Baliabide teknologikoen erabilera etxeko lanetarako

Aldagai horiek errendimenduaren gainean duten eraginaren interpretazioa egiteko tenorean, kontuan hartzeko gauza da azkeneko lauak ikasleen iritzi subjektiboan oinarriturik daudela.

5.1. Generoa



Nafarroan, ikasleen banaketa orekatua dago, generoaren arabera, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean, izan ere, %49 emakumezkoak dira eta %51 gizonezkoak.

Ikaslearen generoaren arabera, ez dago alde esanguratsurik irakurmen gaitasunean lortutako batez besteko puntuazioetan.

Emakumezkoen emaitzak nabarmen hobekak dira Ingeleseko hizkuntza gaitasunean, aldea 27 puntukoa baita.

Gizonezkoen emaitzak nabarmen hobekak dira matematika eta zientzia gaitasunetan. Aldea are handiagoa da matematika gaitasunean (25 puntu) eta ondoren zientzia gaitasunean (20 puntu).

Hurrengo ikasturteetan, Nafarroako hezkuntzaren eginkizunetariko bat izanen da berdintasunean aurrera egitea, zientzien eta matematikaren alderako interesa sustatuz emakumezkoen artean, eta ingelesaren alderakoa, gizonezkoen artean.





5.2. Ikasmaila errepikatzea

Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen %8 errepikatzailea da.

Errepikatzaileen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan, errepikatu ez dutenen aldean. Gainera, errepikatzaileen batez besteko puntuazioak oso apalak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak).



Errepikatu dutenen eta ez dutenen arteko aldea handiagoa da matematika gaitasunean (79 puntu), eta ondoren, hurrenez hurren, ingelesezko hizkuntza gaitasunean (76 puntu), zientzia gaitasunean (74 puntu) eta irakurmen gaitasunean (70 puntu).



5.3. Eskolatzeko goiztiarra

Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen %70 goiz eskolatu zen, erran nahi baita, 3 urte baino gutxiago zituela. Goiz eskolaturiko ikasleen emaitzak nabarmen hobekiak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan, goiz eskolatu ez diren ikasleen aldean. Hala ere, goiz eskolaturiko ikasleen batez besteko puntuazioak pixka bat bainik ez dira Nafarroako batezbestekoa baino hobekiak (500dik 525 puntura bitarteko balioak).

Goiz eskolatu direnen eta ez direnen arteko aldea handiagoa da ingelesezko hizkuntza gaitasunean (15 puntu), eta ondoren, hurrenez hurren, matematika gaitasunean (12 puntu), zientzia gaitasunean (8 puntu) eta irakurmen gaitasunean (6 puntu).





5.4. Ikaslearen jatorria

Gizarte globalizatuetan, etorkin izaera gero eta nahasiagoa da. Ikasle etorkinen definiziotako hau hartu dugu: Espainian jaio ez direnak eta gainera, gutxienez, aita bat edo ama bat estatu honetan jaio gabeak dituztenak. Hartara, Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen %6 etorkinak dira, eta %94 bertakoak.

Etorkinen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan, bertakoen aldean. Gainera, Matematika gaitasunean, etorkinen batez besteko puntuazioak guztiz apalak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak); irakurmen gaitasunean apalxeagoak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467tik 475 puntura bitarteko balioak) eta pixka bat apalagoak ingelesezko hizkuntza gaitasunean eta zientzia gaitasunean Nafarroako batez bestekoaren aldean (475tik 500 puntura bitarteko balioak).


Etorkinen eta bertakoen arteko aldea handiagoa da matematika gaitasunean (36 puntu), eta ondoren, hurrenez hurren, irakurmen gaitasunean (29 puntu), ingelesezko hizkuntza gaitasunean (23 puntu) eta zientzia gaitasunean (13 puntu).



5.5. Indize sozioekonomiko eta kulturalaren maila (ISEK)

Familien maila sozioekonomiko eta kulturalaren eta ikasleen errendimenduaren arteko erlazioak hezkuntza sistemen ekitatea neurtzeko balio duela uste ohi da, izan ere haien arteko erlazioa txikiagoa izateak esan nahi dezake sistema horiek hezkuntza errendimenduan neurri txikiagoan birsortzen ari direla ikasleen gizarte eta familia ingurunean dauden aldeak.


Ikasleen gizarte eta familia jatorriaren alderdi batzuk neurtzeko eraiki da Indize sozioekonomiko eta kulturala (banakako ISEK); haren bidez islatzen da gurasoen lanbidea eta hezkuntza maila, baita etxean eskura dituzten baliabideak, hala nola liburuak edo gailu digitalak. Kontuan harturik banakako ISEK, ikasleak lau “ISEK mailatan” banatzen dira, banakako ISEKren maiztasunen banaketaren kuartilak elkarrengandik bereizten dituzten hiru atalen arabera. Hona zein diren maila horiek: “Apala”, “Apal-Ertaina”, “Ertain-Handia” eta “Handia”; horietako bakoitzean ikasleen %25 sartzen da, nonbait hor (ikus beheko grafikoa).



Hurrengo orrialdeko grafikoa hau ikusten da:

- Emaizta ertainetan hobekuntzarako joera garbia dago banakako ISEK maila handitu ahalean.
- Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean, ISEK maila “apala” dutenen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan. Gainera, irakurmen gaitasunean (gaztelaniaz eta euskaraz) eta Ingelesezko hizkuntza gaitasunean, ISEK “apaleko” ikasleen batez besteko puntuazioak oso apalak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak); zientzia eta matematika gaitasunetan, berriz, puntuazioak apalxeak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467tik 475 puntura bitarteko balioak).



- Beste muturrean, ISEK maila “handia” dutenen emaitzak nabarmen hobeak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan. Gainera, Ingeleseko hizkuntza gaitasunean, ISEK maila handia dutenen batez besteko puntuazioak askoz hobeak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (533 puntu baino gehiagoko balioak); irakurmen gaitasunean (gaztelaniaz eta euskaraz) eta zientzia gaitasunean hobexekak Nafarroako batez bestekoaren aldean (525etik 533 puntura bitarteko balioak), eta matematika gaitasunean pixka bat hobeak Nafarroako batez bestekoaren aldean (500etik 525 puntura bitarteko balioak).
- Beraz, Nafarroako hezkuntza sistema ekitatiboagoa da matematika gaitasunean eta ez behar bezain ekitatiboa ingelesezko hizkuntza gaitasunean.



5.6. Ikastetxearen titulartasuna

Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen %61 irakaskuntza publikokoak dira. Sare publikoko ikasleen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluaturiko lau gaitasunetan, ikastetxe itunduetako ikasleen aldean. Hala ere, ikastetxe publikoetako ikasleen batez besteko puntuazioak pixka bat baizik ez dira Nafarroako batez bestekoa baino okerragoak (475etik 500 puntura bitarteko balioak).

Sare itunduaren eta publikoaren arteko aldea handiagoa da irakurmen gaitasunean (27 puntu), eta horren ondotik, hurrenez hurren, zientzia gaitasunean (14 puntu) eta ingelesezko hizkuntza gaitasunean (13 puntu). Matematika gaitasunean dute alderik txikiena emaitza ertainei dagokienez (9 puntu).




Orri honetan agertzen dira ikasleen ezaugarriak erakusten dituzten grafikoak, non ikasten duten, ikastetxe itunduetan edo publikoetan, horren arabera. Azterturiko lau ezaugarriek alde estatistikoki esanguratsuak azaltzen dituzte ehunekoaren banaketan, ikasleak non ikasten duen, ikastetxe itunduetan edo publikoetan.


Ikasketak ikastetxe itunduetan ikasten duten ikasleen taldean ikasle errepikatzaile gutxiago dago, modu goiztiarrean eskolatutako ikasle gehiago, bertako ikasle gehiago, banakako ISEK maila “apala” duten ikasle gutxiago eta banakako ISEK maila “handia” duten ikasle gehiago.

Titulartasunaren arabera bi ikasle taldeen ezaugarrietan dauden aldeak kontuan hartu behar dira, ikasketak non egin diren, ikastetxe itunduetan edo publikoetan, eskuratutako gaitasun mailen artean dauden aldeak interpretatzean.


Ikasmaila errepikatzea, ikastetxearen titulartasunaren arabera




Eskolatzte goiztiarra, ikastetxearen titulartasunaren arabera



Ikaslearen jatorria, ikastetxearen titulartasunaren arabera




Banakako ISEK maila, ikastetxearen titulartasunaren arabera.




Azkenik, ikasketak non egin diren, ikastetxe itunduetan edo publikoetan, horren arabera eskuratutako gaitasun mailetan dauden aldeetan sakondu nahirik, ondotik ematen dira batez besteko puntuazio eraldatuak azterketak, ikastetxearen titulartasunaren arabera, banakako lau ISEK mailako bakoitzerako.


- Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean **ISEK maila "apala" dutenendako**:
 - o Ingeleseko hizkuntza gaitasunean eta zientzia gaitasunean, titulartasunaren arabera ez dago alde esanguratsurik lortutako batez besteko puntuazioetan.
 - o Irakurmen gaitasunean (gaztelaniaz eta euskaraz), ikastetxe itunduetako ikasleek batez besteko puntuazio hobea lortzen dute sare publikoek baino.
 - o Matematika gaitasunean, ikastetxe publikoetako ikasleek batez besteko puntuazio hobea lortzen dute sare itundukoek baino.




- Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean **ISEK maila "apal-ertaina" dutenendako**:
 - o Irakurmen gaitasunean (gaztelaniaz eta euskaraz), ingelesezko hizkuntza gaitasunean eta matematika gaitasunean, titulartasunaren arabera ez dago alde esanguratsurik lortutako batez besteko puntuazioetan.
 - o Zientzia gaitasunean, ikastetxe publikoetako ikasleek batez besteko puntuazio hobea lortzen dute sare itundukoek baino.



- Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean **ISEK maila "ertain-handia" dutenendako:**
 - o Irakurmen gaitasunean (gaztelaniaz eta euskaraz), ingelesezko hizkuntza gaitasunean eta matematika gaitasunean, ikastetxe itunduetako ikasleek batez besteko puntuazio hobea lortzen dute sare publikoek baino.
 - o Zientzia gaitasunean, titulartasunaren arabera ez dago alde esanguratsurik lortutako batez besteko puntuazioetan.



- Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean **ISEK maila "handia" dutenendako:**
 - o Irakurmen gaitasunean (gaztelaniaz eta euskaraz), ingelesezko hizkuntza gaitasunean eta zientzia gaitasunean, ikastetxe itunduetako ikasleek batez besteko puntuazio hobea lortzen dute sare publikoek baino.
 - o Matematika gaitasunean, titulartasunaren arabera ez dago alde esanguratsurik lortutako batez besteko puntuazioetan.





5.7. Eskola-absentismoa

Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen gehiengo handi batek (%85ek) dio hiruhilekoan bi egun oso baino gutxiago huts egin duela eskolan justifikatu gabe.

Beste muturrean daude 6 egun oso edo gehiago huts egin duten ikasleak (%2): horien batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluatoriko lau gaitasunetan, eta halaber batez besteko puntuazioak oso apalak, Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak).

Bestalde, lau gaitasunetan, nahiz eta matematikan gutxiago, igartzen da batez besteko emaitzak okertzeko joera eskolara huts egindako egun kopurua handitu ahalean.




5.8. Etxeko lanetan emandako denbora irakastorduetatik kanpo


Irakastorduetatik kanpo ikasten edo etxeko lanetan emandako denborari dagokionez, Nafarroan ikasleen banaketa orekatua dago aldagaia azpibanaturik ateratzen diren bost denbora tarteetan (ikus ehunekoen banaketari buruzko grafikoa). Lehen Hezkuntzako 6. mailan ia-ia hiru ikasletik bik (%66k) diote 3tik 12 ordu bitarte ematen dituztela astean, irakastorduetatik kanpoko etxeko lanetan.

Etxeko lanetan oso denbora gutxi ematen duten ikasleek (astean 3 ordu baino gutxiago) batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak lortzen dituzte ebaluaturiko lau gaitasunetan, eta gainera haien batez besteko puntuazioak oso apalak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak).

Bestalde, lau gaitasunetan, nahiz eta ingelesean gutxiago, igartzen da batez besteko emaitzak hobetzeko joera pixka bat handiagoa, etxeko lanetan astean emandako ordu kopurua handitu ahalean.



Batez besteko puntuazio eraldatuak, irakastorduetatik kanpo etxeko lanetan emandako denboraren arabera





5.9. Ikasleen gogobetetasuna ikastetxean

Ikasleek ikastetxean duten gogobetetasun maila ateratzen da testuinguruko galdetegiko 9. galderatik aitzina (ikus 2. ERANSKINA), non adostasun maila eskatzen baita ikastetxearekin, irakasleekin, ikaskideekin eta hartutako prestakuntzarekin ikusteko duten zazpi alderdiren gainean.

Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen %45ek gogobetetasun maila “handia” agertzen dute; %50ek, gogobetetasun maila “ertaina”, eta %5ek baizik ez gogobetetasun maila “apala”.

Gogobetetasun maila “apala” agertzen duten ikasleen batez besteko emaitzak nabarmen okerragoak dira ebaluatoriko lau gaitasunetan. Gainera, irakurmen gaitasunean (gaztelaniaz eta euskaraz) eta ingelesezko hizkuntza gaitasunean, batez besteko puntuazioak oso apalak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467 puntutik beherako balioak); berriz, zientzia eta matematika gaitasunetan apalxeagoak dira Nafarroako batez bestekoaren aldean (467tik 475 puntura bitarteko balioak).


Bestalde, lau gaitasunetan, ikusten da batez besteko emaitzak hobetzeko joera ikastetxearekiko gogobetetasun maila handitu ahalean.




5.10. Baliabide teknologikoen erabilera etxeko lanetarako

Etxeko lanetarako baliabide teknologikoez egiten den erabilera ateratzen da testuinguruko galdetegiko 7. galderatik aitzina (ikus 2. ERANSKINA), non eskatzen baita ordenagailuaren edo tabletaren erabilerearen maiztasuna, etxeko lanetarako edo ikasteko, etxean, ikastetxean edo bestelako lekuetan. Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen %26k “inoiz ez edo oso gutxitan” erabiltzen du teknologia etxeko lanetarako; gehienek (%62k) “batzuetan” eta %11k baizik ez du “maiz edo gehienetan” erabiltzen.

Etxeko lanak egiteko baliabide teknologikoak gutxiagotan erabiltzen dituzten ikasleen batez besteko emaitzak pixka bat hobek dira ebaluaturiko lau gaitasunetan, eta haien batez besteko puntuazioak pixka bat handiagoak Nafarroako batez bestekoaren aldean (500dik 525 puntura bitarteko balioak).



Batez besteko puntuazio eraldatuak, etxeko lanetarako baliabide teknologikoez egiten den erabilerearen arabera



*Iruñean – 2018ko otsailean
Ebaluazio eta Kalitate Atala
Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren, Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua*

6. Eranskinak.

1. ERANSKINA Lehen Hezkuntzaren amaierako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak

Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak 2016/2017 ikasturtea			
Zenbakia	IKASTETXEA	UDALERRIA	TITULARTASUNA
1	Aiegiko Mater Dei ik. it.	Aiegi	Itundua
2	Burlatako Irabia-Izaga ik. it. (egoitza Irabia)	Burlata	
3	Burlatako Regina Pacis ik. it.	Burlata	
4	Mutiloako Luis Amigó ik. it.	Aranguren	
5	Miravalles-El Redín ik. it. (Iruñeko egoitza, El Redín, eta Zizur Txikikoa, Miravalles)	Iruña Zizur	
6	Iruñeko Esclavas Sg. Corazón ik. it.	Iruña	
7	Iruñeko Hijas de Jesús ik. it.	Iruña	
8	Iruñeko S. Ignacio ik. it.	Iruña	
9	Iruñeko Sant. Sacramento ik. it.	Iruña	
10	Iruñeko Santo Tomás ik. it.	Iruña	
11	Iruñeko Sg. Corazón ik. it.	Iruña	
12	Iruñeko Vedruna ik. it.	Iruña	
13	Tuterako Anunciata ik. it.	Tutera	
14	Tuterako Compañía de María ik. it.	Tutera	
15	Baztan ik.	Baztan	
16	Berako Labiaga ik.	Bera	
17	Etx. Aranazko Andra Mari ik.	Etxarri Aranatz	
18	Iruñeko Jaso ik.	Iruña	
19	Tafallako Garces de los Fayos ik.	Tafalla	
20	Andosillako V. Cerca HLHIP	Andosilla	Publikoa
21	Antsoaingo Ezkaba HLHIP	Antsoain	
22	Agoizko San Miguel HLHIP	Agoitz	
23	Barañaingo Alaiz HLHIP	Barañain	
24	Barañaingo "Los Sauces" HLHIP	Barañain	
25	Berriozarko Mendialdea I HLHIP	Berriozar	
26	Burlatako Ermitaberi HLHIP	Burlata	
27	Zarrakazteluko V. Oliva HLHIP	Zarrakaztelu	
28	Castejóngo 2 de Mayo HLHIP	Castejón	
29	Faltzesko D ^a Álvora Álvarez HLHIP	Faltzes	
30	Larraintzarko Irurita Apezpikua HLHIP	Ultzama	
31	Mendabiako S. Fco. Javier HLHIP	Mendabia	
32	Milagroko N ^a Sra. del Patrocinio HLHIP	Milagro	
33	Mutiloako S. Pedro HLHIP	Aranguren	
34	Orkoiengo Auzalar HLHIP	Orkoién	
35	Iruñeko Cardenal Ilundáin HLHIP	Iruña	
36	Iruñeko El Lago Mendillorri HLHIP	Iruña	
37	Iruñeko Mendillorri HLHIP	Iruña	
38	Iruñeko Patxi Larrainzar HLHIP	Iruña	
39	Iruñeko S. Frantzisko HLHIP	Iruña	
40	Iruñeko S. J. Cadena HLHIP	Iruña	
41	Gares HLHIP	Gares	
42	Zangozako L. Gil HLHIP	Zangoza	
43	Tafallako Marqués Real Defensa HLHIP	Tafalla	
44	Tuterako Elvira España HLHIP	Tutera	
45	Tuterako Griseras HLHIP	Tutera	
46	Tuterako Monte San Julián HLHIP	Tutera	
47	Urrozko HLHIP	Urrotz-Hiria	
48	Atarrabiako Lorenzo Goicoa HLHIP	Atarrabia	
49	Zubiriko Gloria Larrainzar Eugi HLHIP	Esteribar	

2. ERANSKINA Ikasleen testuinguruari buruzko galdetegia

IKASLEAREN INIZIALAK (letra larritz)			Ikastetxea:
1. abiz.	2. abiz.	Izena	
			Ikastaldea:

IKASLEENDAKO GALDE-SORTA

Galdera-sorta honen erantzunak garrantzitsuak dira ebaluaziorako, ikaslearen hezkuntza-esperientziei eta haren familia-inguruneari buruzko informazioa zabaltzeko balio baitute.

Mesedez eskatzen dizugu egia erantzuteko, zure laguntzari esker hobeki ezagutuko dugulako eskola-egoera eta, informazio hori oinarri harturik, hura hobetzeko jarduketak proposatu ahal izanen ditugulako.

1. Neska ala mutila zara?

Neska	1	Mutila	2
-------	---	--------	---

2. Noiz jaio zinen?

Eguna: Hilabetea: Urtea:

3. Zenbat urterekin hasi zinen eskolan, haur-eskolan edo haurtzaindegian?

2 urte bete baino lehen	1
2 urterekin	2
3 urterekin	3
4 urterekin edo gehiagorekin	4

4. Zein herrialdetan jaiotuta zara? Eta zure gurasoak?

	Ikaslea	Ama	Aita
Espanian	1	1	1
Beste batean	2	2	2
Zein?	_____	_____	_____

5. Aurtengoa barne hartuta, mailaren bat errepikatu al duzu inoiz? (Aukera ezazu laukitxo bat lerro bakoitzean).

	Ez	Bai, maila bat	Bai, bi maila
Lehen Hezkuntzan	1	2	
Bigarren Hezkuntzan	1	2	3

6. Batez beste, hiruhileko honetan zenbat egun (egun osoz) ez zara eskolara etorri justifikatu gabe? (erantzunari begira, ulertzen da egun bat sei irakastordu direla)

Bi egun baino gutxiago	1
Bi egun edo gehiago eta lau baino gutxiago	2
Lau egun edo gehiago eta sei baino gutxiago	3
Sei egun edo gehiago	4

7. Zer-nolako maiztasunez erabiltzen duzu ordenagailu edo tableta bat eskolako lanerako (etxeko lanetarako, ariketak egiteko eta ikasteko) toki hauetako bakoitzean?

	Inoiz ez edo ia inoiz ez	Batzuetan	Maiz	Egunero edo ia egunero
a. Etxean	1	2	3	4
b. Ikastetxean	1	2	3	4
c. Beste toki batean	1	2	3	4

8. Zenbat ordu ematen dituzu astean etxeko lanak egiten (ikasten edo lanak egiten) irakastorduetatik kanpo?

3 ordu baino gutxiago	1	12 eta 15 ordu artean	5
3 eta 6 ordu artean	2	15 eta 18 ordu artean	6
6 eta 9 ordu artean	3	18 eta 21 ordu artean	7
9 eta 12 ordu artean	4	21 ordutik gora	8

9. Esan ezazu noraino zauden ados zure institutuari edo ikastetxeari buruzko baieztapen hauekin
 (Marka ezazu aukera bat lerro bakoitzean).

	Ez nago batere ados	Ez nago oso ados	Ados samar dago	Gutziz ados nago
a. Gustatzen zait ikastetxean egotea	1	2	3	4
b. Seguru sentitzen naiz nire ikastetxean	1	2	3	4
c. Ikastetxe honetako kide sentitzen naiz.	1	2	3	4
d. Oro har, harreman ona dut nire gelakideekin.	1	2	3	4
e. Nire ikastetxeko irakasleak zuzenak dira nirekin	1	2	3	4
f. Harro nago ikastetxe honetara natorrelako	1	2	3	4
g. Ikastetxe honetan hezkuntza ona jasotzen dut	1	2	3	4

10. Esan ezazu zer-nolako maiztasunez erabiltzen diren zure etxean honako baliabide hauek: (Marka ezazu laukitxo bat lerro bakoitzean).

	Inoiz ez edo ia inoiz ez	Hilabetean behin edo bitan	Astean behin edo bitan	Egunero edo ia egunero
a. Liburuak, irakurtzekoak (paperezkoak edo digitalak)	1	2	3	4
b. Egunkariak (paperezkoak edo digitalak)	1	2	3	4
c. Kontsulta-liburuak edo entziklopediak (paperezkoak edo digitalak)	1	2	3	4
d. Ordenagailua edo tableta	1	2	3	4
e. Internet	1	2	3	4

11. Informazio digitaleko zenbat gailu erabili ohi dira zure etxean? (Ordenagailu, tableta, smartphone, Smart TB, liburu elektroniko eta abar)

12. Zenbat jende bizi da zurekin etxean? (Zu kenduta)

13. Gutxi gorabehera, zenbat liburu daude zure etxean? (Ez sartu liburu digitalak, aldizkariak, egunkariak, ezta ikasliburuak ere).

0-10 liburu	11-50 liburu	50-100 liburu	101-200 liburu	200 liburu baino gehiago
1	2	3	4	5

14. Zein da zure amak eta zure aitak* lortu duten ikasketa-mailarik handiena? (Marka ezazu aukera bat zutabe bakoitzean. Baten bat falta bada, idatzi "Aplikaezina". Espainiako hezkuntza sisteman ikasi ez badute, marka ezazu aukera baliokidea).

	Ama	Aita
a. Ez zen eskolara joan	1	1
b. Eskolara joan zen baino ez zuen amaitu Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	2	2
c. Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	3	3
d. Batxilergoa, Batxilergo Bateratu Balioaniztuna (BBB), Lehen Mailako Lanbide Heziketa (LH), Erdi Mailako LH, Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzetako Erdiko Maila, Kirol Irakaskuntzetako Erdiko Maila, Arte eta Lanbide Eskola Oinarrizkoa, Hizkuntza Eskola Ofiziala	4	4
e. Goi Mailako Lanbide Heziketa, Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzetako Goiko Maila, Kirol Irakaskuntzetako Goiko Maila	5	5
f. Unibertsitateko Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa	6	6
g. Unibertsitateko Lizentzia, Gradua, Ingeniaritza, Arkitektura, Goi Mailako Arte Irakaskuntzak	7	7
h. Unibertsitateko Masterra, Arte Irakaskuntzetako Masterra	8	8
i. Doktoregoa	9	9
j. Aplikaezina	10	10

15. Zer lanpostu motan aritzen dira ama eta aita norberaren lan-jarduera nagusian? Aitak edo amak gaur egun ez badute lan ordaindurik egiten, esan zein izan zen egin zuten azkena. (Marka ezazu bi zutabeetan bakoitzaren lan-jarduerari hobekien egokitzen den lan-kategoria. Kategoria bakoitzean hainbat adibide ikus ditzakezu, argiago ikus dezazun zein den aukerarik egokiena. Baten bat falta bada, idatzi "Aplikaezina").

	Ama	Aita
a. Ez du inoiz lan ordaindurik izan.	1	1
b. Espezializatorik gabeko langilea. Hemen sartzen dira etxeko lanetarako laguntzaileak eta garbitzaileak, eraikinen mantentze-lanetarako langileak, mezulariak, banatzaileak, atezainak, espezializatorik gabeko langileak nekazaritzan, arrantzan eta eraikuntzan...	2	2
c. Langile espezializatuak edo artisaauak. Hemen sartzen dira igeltseroak, zurginak, iturginak, elektrikariak, gidariak, makinistak, metal arloko langileak, mekanikariak, artisaauak...	3	3
d. Langile espezializatuak nekazaritzan, arrantzan eta eraikuntzan. Hemen sartzen dira nekazariak, abeltzainak, nekazaritza-eraldaketako industriako langileak, oihangintzako langileak, arrantza-industriako langileak, ehiztariak...	4	4
e. Makineriako langilea fabrika edo lantegietan. Hemen sartzen dira makineriako langileak fabrika, lantegietan edo muntaketa-kateetan, ibilgailu-motordunetako gidariak...	5	5
f. Jatetxe eta merkataritza zerbitzuetako langileak. Hemen sartzen dira ostalaritzako langileak, saltzaileak, zerbitzariak, sukaldariak...	6	6
g. Zerbitzu pertsonaletako eta babes eta segurtasuneko zerbitzuetako langileak. Hemen sartzen dira erizaintzako edo larrialdietako laguntzaileak, segurtasun zerbitzuetako langileak, oinarritzako eskaletako militarrek eta polizia, suhiltzaileak, ile-apaindegietakoak...	7	7
h. Negoio txiki baten jabea. Hemen sartzen dira enpresa txikietako jabeak (25 langiletik beheitikoak) baita txikizkako denda, zerbitzu, jatetxe eta abarretakoak ere.	8	8
i. Administraria. Hemen sartzen dira administrazio-langileak eta kontulariak, idazkariak, datu-grabatzailak, bezeroen arretarako langileak...	9	9
j. Teknikariak edo laguntzaileak. Hemen sartzen dira teknikariak edo laguntzaileak (zientzialari, ingeniari, informatikari edo biologoenak), erizainak, finantza-teknikariak, negozio-agentearak.	10	10
k. Exekutiboa edo goi mailako funtzionarioa. Hemen sartzen dira enpresetako kudeatzaileak, hala nola, enpresa handietako (25 langile edo gehiagoko) arduradunak edo enpresa handietako departamentuetako zuzendariak, legegileak edo goi mailako funtzionarioak, interes bereziko erakundeetako funtzionarioak, armadako ofizialak...	11	11
l. Profesionalak. Hemen sartzen dira zientzialariak, matematikariak, ingeniariak, arkitektoak edo informatikariak, biologiako eta osasun arloko profesionalak, irakasleak, legeen arloko profesionalak, gizarte gaietan espezializatutako zientzialariak, kazetariak, idazleak, artistak, profesional erlijiosoak...	12	12
m. Aplikaezina.	13	13

ESKERRIK ASKO LAGUNTZEAGATIK

3. ERANSKINA Gaitasun bakoitzeko probetako galderen ezaugarriak

Euskarazko eta gaztelaniazko irakurmen proba					
Galderaren zenbakia	Mota	Erantzun zuzena	Puntuazio handiena	Erantzun zuzenen ehunekoa	Diskriminazio indizea
CLCyE01	Itxia	A	1	%63,82	0,348
CLCyE02	Itxia	D	1	%53,40	0,342
CLCyE03	Erdi irekia	-----	1	%58,84	0,436
CLCyE04	Itxia	C	1	%83,52	0,304
CLCyE05	Itxia	A	1	%61,75	0,357
CLCyE06	Itxia	B	1	%38,62	0,152
CLCyE07	Itxia	A	1	%72,08	0,264
CLCyE08	Itxia	C	1	%65,17	0,298
CLCyE09	Itxia	D	1	%50,96	0,209
CLCyE10	Itxia	B	1	%54,76	0,181
CLCyE11	Itxia	C	1	%75,03	0,264
CLCyE12	Erdi irekia	-----	1	%68,55	0,461
CLCyE13	Itxia	B	1	%28,44	0,078
CLCyE14	Itxia	A	1	%45,48	0,390
CLCyE15	Erdi irekia	-----	1	%49,35	0,460
CLCyE16	Itxia	D	1	%52,50	0,409
CLCyE17	Erdi irekia	-----	1	%71,68	0,558
CLCyE18	Erdi irekia	-----	1	%64,26	0,460
CLCyE19	Itxia	C	1	%74,32	0,210
CLCyE20	Erdi irekia	-----	1	%93,27	0,134
CLCyE21	Erdi irekia	-----	1	%82,76	0,293
CLCyE22	Itxia	B	1	%63,23	0,113
CLCyE23	Erdi irekia	-----	1	%68,15	0,361

Ingeleseko hizkuntza gaitasunaren proba					
Galderaren zenbakia	Mota	Erantzun zuzena	Puntuazio handiena	Erantzun zuzenen ehunekoa	Diskriminazio indizea
CLI01	Itxia	B	1	%91,37	0,243
CLI02	Itxia	B	1	%40,18	0,164
CLI03	Itxia	C	1	%69,93	0,278
CLI04	Itxia	C	1	%45,02	0,306
CLI05	Itxia	C	1	%52,76	0,287
CLI06	Itxia	B	1	%38,43	0,250
CLI07	Itxia	A	1	%45,43	0,305
CLI08	Itxia	B	1	%30,54	0,145
CLI09	Itxia	B	1	%57,15	0,305
CLI10	Itxia	C	1	%31,62	0,179
CLI11	Itxia	D	1	%43,77	0,109
CLI12	Itxia	A	1	%63,50	0,122
CLI13	Itxia	C	1	%58,29	0,341
CLI14	Itxia	D	1	%80,14	0,283
CLI15	Itxia	C	1	%69,95	0,224
CLI16	Itxia	A	1	%64,16	0,234
CLI17	Erdi irekia	-----	1	%53,44	0,467
CLI18	Itxia	B	1	%58,86	0,379
CLI19	Itxia	A	1	%83,18	0,341
CLI20	Itxia	C	1	%76,41	0,403
CLI21	Itxia	A	1	%44,83	0,421
CLI22	Erdi irekia	-----	1	%42,31	0,452
CLI23	Itxia	C	1	%37,51	0,248
CLI24	Erdi irekia	-----	1	%8,74	0,356
CLI25	Itxia	B	1	%81,03	0,378
CLI26	Itxia	A	1	%50,84	0,313
CLI27	Erdi irekia	-----	1	%31,36	0,485
CLI28	Itxia	A	1	%43,47	0,346
CLI29	Erdi irekia	-----	1	%70,30	0,409
CLI30	Itxia	C	1	%60,98	0,400
CLI31	Itxia	C	1	%33,41	0,160
CLI32	Erdi irekia	-----	15	%43,63	0,531

Matematika gaitasunaren proba					
Galderaren zenbakia	Mota	Erantzun zuzena	Puntuazio handiena	Erantzun zuzenen ehunekoa	Diskriminazio indizea
CM01	Itxia	B	1	%79,40	0,230
CM02	Itxia	C	1	%52,79	0,288
CM03	Itxia	C	1	%66,96	0,260
CM04	Erdi irekia	-----	2	%38,58	0,370
CM05	Itxia	C	1	%36,36	0,226
CM06	Itxia	A	1	%38,68	0,262
CM07	Itxia	B	1	%50,38	0,244
CM08	Itxia	D	1	%62,42	0,318
CM09	Erdi irekia	-----	1	%28,86	0,413
CM10	Itxia	B	1	%81,57	0,186
CM11	Erdi irekia	-----	1	%12,75	0,265
CM12	Itxia	C	1	%61,25	0,371
CM13	Itxia	B	1	%58,91	0,250
CM14	Itxia	C	1	%45,59	0,288
CM15	Erdi irekia	-----	1	%45,53	0,301
CM16	Itxia	A	1	%47,35	0,440
CM17	Itxia	B	1	%88,59	0,211
CM18	Erdi irekia	-----	2	%33,78	0,484
CM19	Erdi irekia	-----	1	%37,24	0,304
CM20	Itxia	B	1	%50,54	0,176
CM21	Itxia	B	1	%36,66	0,090
CM22	Erdi irekia	-----	2	%17,21	0,462
CM23	Itxia	B	1	%51,86	0,332
CM24	Erdi irekia	-----	1	%66,62	0,282

Zientzia gaitasunaren proba					
Galderaren zenbakia	Mota	Erantzun zuzena	Puntuazio handiena	Erantzun zuzenen ehunekoa	Diskriminazio indizea
CCN01	Itxia	A	1	%67,33	0,098
CCN02	Itxia	B	1	%38,39	0,212
CCN03	Itxia	D	1	%52,21	0,232
CCN04	Erdi irekia	-----	2	%71,72	0,227
CCN05	Itxia	D	1	%38,15	0,141
CCN06	Erdi irekia	-----	2	%39,68	0,292
CCN07	Itxia	C	1	%65,11	0,302
CCN08	Erdi irekia	-----	2	%32,10	0,355
CCN09	Itxia	C	1	%90,18	0,256
CCN10	Erdi irekia	-----	2	%19,28	0,325
CCN11	Itxia	D	1	%69,37	0,308
CCN12	Itxia	C	1	%53,10	0,188
CCN13	Erdi irekia	-----	1	47,02%	0,190
CCN14	Erdi irekia	-----	1	%75,87	0,353
CCN15	Erdi irekia	-----	2	%32,81	0,248
CCN16	Erdi irekia	-----	1	%35,19	0,312
CCN17	Itxia	C	1	%70,05	0,398
CCN18	Itxia	B	1	%91,51	0,126
CCN19	Itxia	D	1	%54,87	0,218
CCN20	Itxia	D	1	%71,88	0,318
CCN21	Itxia	A	1	%72,36	0,279
CCN22	Itxia	A	1	%64,31	0,254
CCN23	Itxia	B	1	%61,35	0,237
CCN24	Itxia	B	1	%37,48	0,141
CCN25	Itxia	B	1	%59,91	0,163
CCN26	Itxia	A	1	%83,24	0,409
CCN27	Itxia	C	1	%80,26	0,369
CCN28	Erdi irekia	-----	1	%40,98	0,141
CCN29	Itxia	C	1	%51,37	0,204
CCN30	Itxia	D	1	%57,60	0,273
CCN31	Itxia	C	1	%89,58	0,331
CCN32	Itxia	C	1	%75,39	0,366
CCN33	Itxia	D	1	%78,85	0,418
CCN34	Itxia	A	1	%25,23	0,143
CCN35	Itxia	C	1	%68,41	0,214
CCN36	Itxia	B	1	%66,27	0,288
CCN37	Itxia	B	1	%64,02	0,422
CCN38	Itxia	B	1	%59,45	0,012

4. ERANSKINA Errendimendu mailen zenbakizko zehaztapena eta deskribapen kualitatiboa

Errendimendu mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batera atxikitzeko beharrezkoa da maila horri dagokion puntuazio tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazten den bezala:

	Irakurmen gaitasuna gaztelaniaz eta euskaraz	
	Punt. zuzenen tartea	Punt. eraldatuen tartea (*)
1. maila	0 – 8	351 baino gutxiago
2. maila	9 – 11	352tik 421era
3. maila	12 – 18	422tik 607ra
3.+ maila	19 – 23	608 baino gehiago

	Hizkuntza gaitasuna ingelesez	
	Punt. zuzenen tartea	Punt. eraldatuen tartea
1. maila	0 – 13	371 baino gutxiago
2. maila	14 – 18	372tik 435era
3. maila	19 – 33	436tik 626ra
3.+ maila	34 – 44	627 baino gehiago

	Matematika gaitasuna	
	Punt. zuzenen tartea	Punt. eraldatuen tartea
1. maila	0 – 7	382 baino gutxiago
2. maila	8 – 9	383tik 423ra
3. maila	10 – 19	424tik 626ra
3.+ maila	20 – 26	627 baino gehiago

	Zientzia gaitasuna	
	Punt. zuzenen tartea	Punt. eraldatuen tartea
1. maila	0 – 16	361 baino gutxiago
2. maila	17 – 21	362tik 443ra
3. maila	22 – 31	444tik 607ra
3.+ maila	32 – 41	608 baino gehiago

Oharra: maila bakoitza mugatzen duten puntuazio tartek desberdinak dira ebaluatoriko gaitasun bakoitzean eta, beraz, ez dira haien artean konparagarriak.

(*) **Puntuazio eraldatua** da puntuazio zuzena eskala jarraitu batera ekartzean gelditzen dena, eskala horren batez bestekoa 500 puntukoa denean (Nafarroan ebaluatoriko ikasle guztien batez besteko puntuazioa) eta desbideratze tipikoa, berriz, 100 puntukoa. Eskala horrek errazten du talde eta gaitasunen arteko alderaketa. Desbideratze tipikoa 100 izateak esan nahi du ikasleen bi herenek, nonbait hor, 400dik 600era bitarteko puntuazioa dutela, eta %95ek, nonbait hor, 300dik 700era bitartekoa. Hona eraldatze hori lortzeko formula, gaitasun bakoitzaren balio berariazkoak erabiliz:

$$\text{Punt.Eraldatua} = 500 + 100 \times \left(\frac{\text{PuntZuzen} - \text{BatezBestekoa}_{\text{Nafarroa}}}{\text{DesbTip}_{\text{Nafarroa}}} \right)$$

Errendimendu mailen deskribapen kualitatiboa

Gaitasun horietako bakoitza noraino eskuratu den modu kualitatiboan eta orokorrean deskribatzen da, hau da, maila horretan dauden ikasleek erdietsitako ikaskuntzak:

Irakurmen gaitasuna gaztelaniaz eta euskaraz		
	Gaitasunaren garapena...	Deskribapena
1. maila	Apala	Maila honetan dauden ikasleak gai dira testu batetik informazio esplizitua berreskuratzeko eta oso ideia orokorrak adierazteko haren edukiaz.
2. maila	Partziala	Maila honetan dauden ikasleak gai dira hitz edo esamolde baten esanahi egokia bereizteko, haren testuinguruaren arabera. Gai dira testu batek dakarren informazioa interpretatzeko eta harekin ikusteko duten alderdi esplizitu eta implizituak ondorioztatzeko.
3. maila	Ona	Maila honetan dauden ikasleak gai dira idatzizko dokumentu batean adierazten diren datuetatik eta norberaren eskarmentutik abiatuta ondorioak lantzeko, beren ezagutza orokorrak aplikatuz ideia errazak adierazteko eta narrazio testu bat egituratzen duten atalak bereizteko.
3.+ maila	Handia	Maila honetan dauden ikasleak gai dira testu batetik atera daitezkeen datu implizitu edo esplizituetatik abiatuta hipotesiak planteatzeko eta testuei loturiko irudietan bermatzeko, halako konplexutasun bat duten ondorioak garatu beharrez.

Ingeleseko hizkuntza gaitasuna		
	Gaitasunaren garapena...	Deskribapena
1. maila	Apala	<p><u>Entzunaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira testu errazetan informazio esplizituari (datak, zenbakiak eta kopuruak) antzemateko eta identifikatzeko, horiek ikusizko laguntzarekin edo testuinguruaren erreferentzia argiarekin aurkezten direlarik.</p> <p><u>Irakurriaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira funtsezko informazioa ulertzeko eta espazio fisikoarekin eta denborarekin, kokalekuekin, aisiarekin eta familiarekin loturiko informazio berariazkoa kokatzeko, testuak direnean laburrak eta errazak, informazio edo narrazio arlokoak eta ikusizko laguntza dutenak.</p> <p><u>Idatzizko adierazpena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira testuak idazteko, baina testu horien irakurketak zailtasun puntualak izaten ditu, honako hauek idatziaren ulermena zailtzen dutelako: berridazketak, hiztegi mugatu eta oinarritzakoa, akats ortografiko mordoa eta informazio garrantzitsuaren gabezia.</p>
2. maila	Partziala	<p><u>Entzunaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira beren familiari, lanbideei, inguruneari edo aisialdiari buruzko elkarrizketa errazen gaineko ideia orokorri antzemateko, eta haien gaineko informazio berariazkoa ateratzeko.</p> <p><u>Irakurriaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira mota desberdinetako testuetan (informaziorako liburuxkak, txatetako elkarrizketak eta narrazio laburrak) informazio berariazkoa identifikatzeko eta kokatzeko, zenbaitetan laguntza ikusizkoa eta testuinguruari buruzkoa izanda.</p> <p><u>Idatzizko adierazpena</u>: Maila honetan dauden ikasleak gai dira testu irakurgarri samarrak idazteko, nahiz eta testu horien ulermena lausotzen duten akats ortografiko eta gramatikalak egin. Koaderno txoaren jarraibideak betetzen dituzten testuak dira, zenbaitetan kohesio eta koherentzia akatsak izanagatik ere.</p>
3. maila	Ona	<p><u>Entzunaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira beren intereseko gaietara buruzko elkarrizketa erraz eta ongi egituratuaren ideia nagusiak ulertzeko eta informazio inplizitu eta esplizitua bereizteko.</p> <p><u>Irakurriaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira beren hurbileko edo intereseko gaietara buruzko albiste labur, artikulua, narrazio eta elkarrizketen alderdi nagusiak ulertzeko eta haien inguruko esanahi eta xede komunikatibo orokorrak identifikatzeko.</p> <p><u>Idatzizko adierazpena</u>: maila honetan dauden ikasleak ekoizten dituzten testuak akats gutxi dituzte kohesioaren, ortografiaren eta gramatikaren aldetik, eta horiek ez dute komunikazioa galarazten. Oro har, testuak elkarrekin ongi josiak izaten dira, eta hiztegi aberatsa eta askotarikoa izaten dute.</p>
3.+ maila	Handia	<p><u>Entzunaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira mota askotako ahozko mezuak ulertzeko eta haietatik informazio orokor eta berariazkoa ateratzeko, mezu horiek esparru ezagunekoak izanik eta informazio esplizitua nahiz inplizitua bideraturik.</p> <p><u>Irakurriaren ulermena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira informaziorako material batean funtsezko informazioa ulertzeko eta informazio berariazkoa kokatzeko, ulermen globalaren inferentzia eginez.</p> <p><u>Idatzizko adierazpena</u>: maila honetan dauden ikasleak gai dira idazlanak egiteko, komunikazio xedea bikain lortzen dutenak eta hiztegi aberatsa eta askotarikoa dutenak. Testu koherenteak eta kohesionatuak dira, perpausak ongi elkar lotuak dituztenak eta ia-ia akats ortografiko edo gramatikalik gabeak.</p>

Matematika gaitasuna		
	Gaitasunen garapena...	Deskribapena
1. maila	Apala	Maila honetan dauden ikasleak gai dira beren eguneroko bizitzako problema errazak ebazteko, denboraren neurriak erabiliz, eta oinarrizko gorputz geometrikoei antzemateko eta identifikatzeko.
2. maila	Partziala	Maila honetan dauden ikasleak gai dira beren eguneroko bizitzako problema errazak ebazteko, estrategia eta prozedura desberdinak aplikatuz eta magnitude desberdinetako neurketa unitateak erabiliz.
3. maila	Ona	Maila honetan dauden ikasleak gai dira hainbat iturritatik eskuratutako informazioa interpretatzeko eta eraldatzeko, eta hura eguneroko problemen ebazpena kalkulatu beharrez erabiltzeko, edo problema horiek ebazteko prozedura matematikoak eta algoritmoak erabiliz. Halaber, gai dira irudi geometriko lauei antzemateko eta haien elementuak bereizteko.
3.+ maila	Handia	Maila honetan dauden ikasleak gai dira testuinguru desberdinekin loturiko problema konplexuek izan lezaketan soluzioen gaineko hipotesiak formulatzeko, eta problema horiek ebazteko eragiketa eta unitate egokiak erabiliz, baita horien ebazpenean segitutzeko prozesua deskribatzeko ere.

Zientzia gaitasuna		
	Gaitasunen garapena...	Deskribapena
1. maila	Apala	Maila honetan dauden ikasleak gai dira organismorako osasungarriak diren ohiturak baloratzeko eta identifikatzeko, beren berdinen emozio eta egoerekin enpatiko agertzeaz gain. Hasten dira garapen teknologikoa eta eguneroko bizitzan duen eragin positiboa baloratzen, erreakzio kimikoak eta zenbait fenomeno gobernatzan dituzten oinarrizko legeetariko batzuk ezagutzen, eta Unibertsoaren osagaietariko batzuk identifikatzen.
2. maila	Partziala	Maila honetan dauden ikasleak gai dira beren eguneroko bizitzako egoera ezagunetan lehen sorospentarako teknikak erabiltzeko, animalia ornodun eta ornogabeak hautemateko eta sailkatzeko, eta orobat hegaztien habitata eta izaki bizidunen halako espezie batzuen galeraren zenbait kausa. Gai dira oinarrizko fenomeno fisiko eta kimikoak ezagutzeko. Makina mota desberdinak identifikatzen eta sailkatzen ahal ditu, eta egunero erabiltzeko ohiko objektuen erakuntza planifikatzen.
3. maila	Ona	Maila honetan dauden ikasleak gai dira materia bizidunaren antolaketan konplexutasun maila desberdinak ezagutzeko, eta giza gorputzaren aparatu eta sistema zenbait identifikatzeko eta kokatzeko, funtzio eta guzti. Halako ekosistema baten ezaugarriak identifikatzen ahal dituzte, landare eta animalia ornodunak sailkatzen eta kate trofikoak ordenatzen. Gai dira material elektrizitate-eroaleak eta isolatzaileak bereizteko, argiaren islapena deskribatzeko eta esperimendu errazak proposatzeko zenbait fenomeno fisiko azaldu beharrez; gai dira, halaber, eguzki sistemaren barnean Eguzkiaren kokalekua identifikatzeko, eta gaua eta eguna hautemateko, lurraren errotazioaren ondorio gisa.
3.+ maila	Handia	Maila honetan dauden ikasleak gai dira giza gorputzaren aparatuek bereizteko, eta orobat organismoa mantentzeko ohitura osasungarrien beharraz jabetzeko. Esperimendu errazen bidez planifikatzen eta ikertzen ahal dituzte hainbat motatako prozesu fisiko eta erreakzio kimikoak, eta hautatzen zirkuitu elektriko bat prestatzeko tresna egokiak. Gai dira zientziaren aurrerapenak beren egunerokotasunean azaltzeko eta baloratzeko, edo makina konposatuetako zatiak bereizteko. Gai dira urtaroak lurraren translazio mugimenduaren eragin konbinatuari lotzeko, eta ilargiaren faseak ezagutzeko.